

BENTADRAMA

NEGOZIATZEN TREBATU



Grupo Bentas enpresarekin eta enpresarentzako diseinatutako formazioa da. Bezero edo erabiltzailearekin topo egin arte, negoziazioa eskutitz bidezko harremana izaten da, produktu edo zerbitzuaren hobariak aurkezteko eta entitateen identitatea ezagutarazteko. Ondoren parez pare aurkitzerakoan “orain eta hemen” bizi behar da, ibilbidearen momentu bakoitza arnastu, gorputzak, buruak eta senak diotenaz adi, egoeraren jabe izan. Bentadrama prozesuaren hasiera momentu bakoitza xehatzea da eta ondoren, eszena bakoitza bere aldetik lantzea. Salerosketa baten, emozio guztiek haien lekua dute eta nork bere emozioak kontrolatzean dago arrakastaren giltza. Bestalde, bezero edo erabiltzailearen emozioa asmatzeak, mugimendu desberdinak egiteko abantaila asko ematen ditu, egitarauaren prozesuko etapa bat bezeroaren emozioen jarraipen lana egitea da.

Diotenez, pertsona orok ez du balio salmentarako eta Apropoxek dio, ikasteak ez duela neurririk eta salmenta bat entseatzekoan pertsonak balioa izan edo ez, eskarmentuaren ikasgaiak gorputzean luzaroan dirauela eta jasotako lezioak eragin izugarria izan dezakeela senean. Apropoxek sektore honi duen garrantzia emateko, partaideak antzekizunen bidez, gorputzean, buruan eta ariman gordeko dituen eskarmentuak eragin, prestatu eta zuzentzen ditu.

Mamia:

Esan beharra dago negoziazioaren prozeduran irudiak bere eragina duela, hau da bezero edo erabiltzaileak ikusten duena salmenta prozesuaren ezaugarri bat da. Partaideek haien gorpuzkera irakurtzen jakitea garrantzitsua da, zer gertatzen da artikulazioekin, non biltzen dira tentsioak, begirada konstantea den, zein keinuk egiten dute ihes. Ondoren harremana ikertzen da eta lehen ezaugarria segurtasun distantzia da,

pertsonok elkarren artean mantentzen dugun espazioari arreta jartzea, naturaltasuna oinarritzat hartuta segurtasun distantzia hau ikertzeak egoeraren jabetza izaten laguntzen du eta distantzia horrekin jokatzeko ahalduzkoa. Partaideek egoera desberdinak entseatzeko dituztenean formazioaren magia pizten da, eszena berdina rol desberdinetatik frogatuz, hitz desberdinak erabiliz, tonalitateak, isiltasunak etab. Partaideak kanpo begirada lantzen duenean inoiz preziatu gabe zeuzkan ezaugarriez jabetzen da, eta entseguan, bai bezero edota saltzaile papera betetzean, oholtzan suertatutako egoera benetako eskarmentu bat bezala, gorputzean barneratzen da.

Baldintzak eta Eskakizunak:

- Bentadrama prozesua marketing eta salerosketan dabilzan langileak laguntzeko sortu da.
 - o Marketinga ikasten ari diren ikasleak.
 - o Profesionalki aritzen diren langile edota enpresak.
- **Bentadrama** prozesuan erabiltzen den teknika berria dela eta, zerbitzua bultzatu eta aberasteko asmoz, eskertzekoa da, deia egin duen entitateko arduradun batek Bentadrama prozesua zuzenean bizitzea.
- “Prewrite”en bidez partaideek gorputz, buru eta arima prestatzen dute.
- Formazioaren lehen zatia, espazio txukun eta itxi baten izan behar da, giro konfidentziala lortzeko, askatasunez adierazteko, antzezteko ... ondoren, antzezteko behar izango dugun materiala dagoen lekura gerturatuko gara, edo materiala bertaratu.

Onurak:

- Taldea sendotu. Parte hartzaileak entitate berdinen kide izanik, formazioak haien arteko harremana sendotzen du. Antzerkia elkar bizi izan ondoren, hitz egiteko era aldatzen da eta aurrera begira, trebe sentituz gero, haien aldetik ikertu ditzakete haien zailtasunak.
- Rolak garatu. Eszenak egiterakoan, partaideek haien rola kanpotik begiratzean, hobariak eta oztipoak nabarmentzen dira eta beste rol batzuk landuta, abantailak irabazi ditzaketela konturatu. Haien burua, gorputza eta anima babesteko egin behar dituzten aldaketak barneratzean, jardunean dituzten pisuak arintzen dituzte.
- Enpatiaren esan nahiak, larru-azalek bizi eta errailetan tokia hartzen du.
- Maitasuna eta salmentaren arteko harremana, ezagutu eta neurtu.

SEGURTASUN-DISTANTZIA

Gorputzak, beste pertsona batekiko distantzia neurtzeko, igortzen duen energia.



Noiz nabari dugu?

- * Ez ezagun bat gerturatzean.
- * Jende askok inguratzen gaituenean.
- * Giro berri baten.

Zein distantziatara sentitzen zara inbadituta?

INTERPRETAZIOA




**Denok,
elkarrengandik ikasiko dugu**

Interpretazioaz.



Orain eta hemen Rol aldaketaz Oroimenaz Kanpoko begiradaz Ahotsa bikoiztuz Elkarren ispilua izanez Irudimenaz

Bezere bakoitzari onena eman.



Antolaketa:

- Luzapena: 4 ordu eta $\frac{1}{2}$ < 6 ordu. .
- Saio bakoitzaren luzapena: Ordu 1 eta $\frac{1}{2}$ edo 2 ordu.
- 3 aste eta asteko saio bat.
- Bideratzaile antolatzaileen batzar baten bueltan azaltzen dira taldearen idiosinkrasiak eta martxan jartzeko ereduak.

Egitarauaren berrmatzea:

- **Bentadrama** prozesua sortzeko, antzerkiaren alor desberdinetatik jaso da materiala eta teknika nabarmenena psicodrama da: Taldean egiten den terapia da, pazienteak bere patologiak eszenaratzean datza. Iurgi Etxebarria psicodramatistak, antzerkiaren jakintzaz batu eta **Bentadrama** prozesua diseinatu du.
- Prozesua sortzeko, GRUPO BENTASeko aholkuak, informeak eta gogoak jaso ditu.
- Prozesuan barneratuta, aldi oro, partaideen arreta ziurtatzen da, guztiok bat eginik goazela sentitzeko eta prozesuan eginiko lana barneratzeko.

- Egitarauaren kalitatea hobetzeko, ikastaldi bakoitzaren ondoren balorazioa egiten da, bai partaideekin baita antolatzaileekin ere.

Materiala:

- Apropoxen esku gelditzen dira ariketak burutzeko materiala.
- Antolatzaileen esku geratzen da, eszenak egiteko behar den materiala, salmentarako beharrezkoa dena.

Zuen inguruan, hemen azaltzen diren ikasgaiak sendotu beharra sentitzen baduzue, jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar ditugun ikasgaiei buruz hitz egiten ari gara.